




**Online irakaskuntzaren
testuinguruak eta horietarako
eredu teknologikoak.**

Mondragon Unibertsitateko
eredu teknopedagogikoa online
testuinguruetarako.

Nagore Ipiña Larrañaga (HUHEZI, MU).



MENDEBERRI 2025 hezkuntza ereduan oinarritzen da Mondragon Unibertsitatearen eredu teknopedagogikoa.



Hezkuntza proiektua eraiki da ezaugarri pertsonal eta profesionalak kontuan hartuz eta elementu curricularrak definituz. Azken horietako bat da **DIGITALIZAZIOA**.


Digitalizazio horren barruan, online eredua definitu zen eta oinarritzat **TPACK** eredua (Technological Pedagogical and Content Knowledge) hartuko dugu. Testuinguruan kokatuta, helburua erdigunean sortzen diren inter-harremanen espaziora heltzea da online-testuinguruak diseinatzerakoan.

Eredu honetan oinarritutako ikastaroak sortzerako orduan, hurrengo ezaugarriak landu dira komunitatearekin: testuinguruak, ikasle eta irakaslearen rolak, egokitasun pedagogikoa eta diseinua, erreminta teknologikoen ezagutza, jarraipena eta feedbacka.

Aurrerapen orokorra %

6

Harrera



Online ikaskuntzaren
gakoak




Ikaste esperientzien
diseinua testuinguru
digitaletan



Komunikazioa



Itxiera



Elkarrizketarako kafe gunea



Oparitarako gunea





Sarrera

Sarrerako atalak 3 galdera nagusiri erantzungo die eta honek ikastaroaren logika ulertzeko gakoak emango dizkigu:

- Zer aurkituko dut ikastaro honetan?
- Zergatik da garrantzitsua atal hau?
- Zer jakingo dut/ jakingo dut egiten atal hau amaitzean?

Garapena

Garapena atala 3 elementuz osatzen da:

- Kontzeptualizazio laburra: gaiaren inguruko input multimodala aurkituko duzu hemen.
- Plataformara nola eraman?: lantzen den gaiak plataforman har dezakeen formaren inguruko hitz egingo dugu azpiatal honetan.
- Tresnak eta erremintak: online testuinguak eskaintzen dizkigun aukeretatik hainbat tresna aurkeztuko zaizkizu.





Itxiera

Itxiera atalean aurretik landutakoaren sintesia aurkeztuko zaizu formatu anitzetan. Horrekin batera, Eta nik zer? azpiatalean, 2020-2021 ikasturterako zure ikastaro propioa sortzeko proposamenak edo sortutakoaren gainean moldaketak egitea eskatuko zaizu. Ondoren, zure jarraipena egingo duen tutorearekin eztabaidatuko dituzu egindakoak.

Atal bakoitzean aurkituko duzu tutorearekin edo ikastaroko partehartzaileekin komunikatzeko foro bat [koMUnikatzen]. Noski, beti erabili dezakezu emaila zuzenean komunikatzeko. Horretaz gain, MUko kafetegia ere izango duzu aktibo ikastaro guztian zehar.



Ereduan sustatu da ikaskuntza irakaskuntzaren gaineratik jartzea eta ikasleen ikaskuntza aktiboa sustatuko duten metodologiak eta testuinguruak diseinatzea.

1.
 - ▶ Ikaskuntza aktiboa eta auto-erregulatua.
 - ▶ Kolaborazioa indartzea.
 - ▶ Pertsonalizazioa sustatzea; sakontzeko aukera ematea.
 - ▶ Onlineko espazio informalak ere diseinatzea; une biziak indartzea.
 - ▶ Ebaluazioa (eta ez kalifikazioa) ikasleekin hasieratik definitzea eta adostea.
 - ▶ Jarraipenari garrantzia ematea, ez azken ekoizpenari.
 - ▶ Komunikazioa iturri anitzetatik sustatzea eta explizitatzea.
 - ▶ Malgutasunez jokatzeko - egokitzapenak egiteko prest egotea-

2. Mudlerako baliabideak



Bigarren atal honetan, Mudlerekin zerikusia duten baliabideak ikusiko ditugu. Atal hau, Mudlen ikastaro bat osatzeko kontutan hartu behar diren jarraibideak identifikatzeko eta plataforman aurki daitezken baliabideak ezagutzeko da baliagarria.

Mudle osatzeko jarraibideak

Mudle antolatzen hasteko, jarraitu dokumentu honetan aurkituko dituzun oinarriko urrats eta jarraibideak. Bertan, estekak aurkituko dituzu, infografia batzuetara eramango zaituztenak. Horietan, testu azalpenak eta bideo-tutorialak eskaintzen zaizkizue, jarraitu beharreko pausuak azalduz.

 Mudle: Irakasleentzako laguntza txantiloia 553.8KB PDF dokumentua

3. Hezkuntzarako baliabide digitalak



Hirugarren atal honetan, hezkuntzarako **tresna eta baliabide digital** ezberdinak erakutsiko dizkizuegu. Ondorengo orrialdean, tresna digitalak kategoriatan sailkatuta ageri dira, bertan, **NOIZ** eta **ZERTARAKO** erabili daitezkeen zehazten dizkizuegu. Kategoriatan bakoitzeko, liburuak sortu ditugu eta horien barruan tresna bakoitzari buruzko infografia bat aurkituko duzue. Bigarren liburuan, KoLaborategiko biltegian ditugun eta erabili daitezkeen materialak topatuko dituzue, bakoitzaren oinarriko azalpenekin. Zertarako erabiliko zenituzkete?

Liburuxka hauek irakasleon eta ikasleen **lana errazteko** asmoarekin sortu dira, beraz, horiek ezagutzera, probatzera eta zuen praktikan txertatzera gonbidatzen zaituztegu!




AURRERA BEGIRAKO ILDOAK ETA HELBURUAK.

01. Komunitate digitalki konprometitua

Digitalizazioak hezkuntza komunitate osoa bustitzen du, arlo ia guztietan. Hori horrela izanda, konpetentzia digitala garatuta duten kidez osatuta komunitate gisa irudikatzen dugu HUHEZIn hezkuntza-komunitatea: informazioa maneiatzeko, tresna digitalen bidez komunikatzeko eta kolaboratzeko, eduki digitala sortzeko, beren segurtasun digitala zaintzeko eta arazoak ebazteko gai dena. Irakasleen kasuan, ikaste prozesuetan teknologia digitalak integratzeko gai direnak, ezagutzan eta ardura teknopedagogikoan oinarrituta.

02. Pertsonan ardaztutako digitalizazio jasagarria eta osasuntsua

Ikaste prozesuetan egiten dugun bezala, HUHEZIn digitalizazioak pertsona izan behar du erdigunean. Horrek esan nahi du garapen teknologikoak eta digitalizazioaren norabideak inplikatzeko dituen balioak lerrotuta egon behar direla gure komunitateak dituen balioekin eta egiteko moduekin. Era berean, erdigunean dauden pertsona horien zaintza garrantzitsutzat jotzen dugu, praktika digitalek (online bileren erritmoa, 24/7 disponibilitatea...) sortzen dituen inertzien arriskuak ekiditeko eta sahiesteko.



03. Pertsonalizazioa: ikasleak bere ikaskuntzaren gaineko erabakiak

Teknologia digitalak gero eta aukera gehiago eskaintzen ditu ikasle bakoitzari bere beharrak eta motibazioak asetzen laguntzeko eta horien arabera ibilbideak eskaintzeko. Ildo horretatik, HUHEZI aukera horiek baliatzen dituen erakunde gisa irudikatzen dugu: alde batetik, titulazioetan ikasleak berak bere ikaste prozesuaren gaineko erabakiak hartzeko aukerak eskainiz, bai makroan (praktikak non egin, egonaldiak...) bai mikroan (ekoizpen motak, moduluen konfigurazioa...); eta beste alde batetik, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako ikaskuntza eskainiz, norbere gaitasunen eta esperientzia pertsonalaren arabera ikaskuntza prozesuan zehar aurrera egiteko aukera emanez.

04. Presentzialitatearen birdefinizioa

Digitalizazioak eraginda, espazio-denbora eskema apurtzeko aukera daukagu: aurrez aurre, online, modu asinkronoan, sinkronoan eta horien arteko konbinazioak egin daitezke. Aukera horiek baliatuta, askotariko testuinguruak sor daitezke lan egiteko zein ikasteko. Hori horrela, presentzialki biltzea zer den eta zer balioa duen aldatu egiten da eta presentzialitate horretan proposatutako ekintzen birdefinizioa eskatzen du. HUHEZI birdefinizio horren kontzientzia duen erakunde gisa ulertzen dugu eta askotariko testuinguru horien diseinuan aritu eta aditu.



05. Ikaskuntzaren ubikuidadea

Ubuikuidadea ingurune fisikoak inposatutako mugak haustera datorren kontzeptua da eta etengabeko mugimenduaren ideia du atzean. Hau da, edonon, edonoiz, edonorekin... lan egin edo ikastea. HUHEZI irekitasunera begira dagoen erakundea izanda, ikaste prozesuen diseinuan teknologia digitalak ubuikudaderako eskaintzen dituen aukerak probestuko dituen erakunde gisa ulertzen dugu. Gaur egun, hainbat ekintza eta ingurune eskaintzen dira; gelaz kanpokoak eta digitalak (MUdle). Etorkizunera begira, HUHEZIk ikasleei beren ikaste prozesuan ubikuidadean ikasteko aukera gehiago eskaintzea aurreikusten da.

06. Ikaskuntza-datuen ustiaketa (analytics), gobernantza eta jasangarritasuna

Ikaskuntza-datuen analisia gero eta gehiago erabiltzen da ikaste prozesuen inguruko erabakiak hartzeko. Dashboard-ak bezalako tresnei esker, hezkuntza komunitateko askotariko profilek baliatu eta probestu dezakete analisi horien atzean dauden datuak: diseinu didaktikoak hobetzeko, ikaste prozesuak doitzeko, produktuen eskaintza baloratzeko... Datu horien ustiaketa gobernantzan eta jasangarritasunean oinarritu behar da: alde batetik, eskuragarritasuna, erabilgarritasuna, iraunkortasuna eta segurtasuna bermatu behar dira, komunitate osoaren esku utzita (governantza); eta bestetik, hori guztia bermatu ahal izateko datuen kudeaketa egingo duten profil edo rol berriak sortzea (jasangarritasuna). HUHEZI gai honetan aurrerapausoak emango dituen erakunde gisa ikusten dugu, beren misioari eta bisioari erantzuten laguntzeko prozesu gisa.



07. Ikaskuntza esperientziala digitalki aberastea

Errealitate birtuala eta areagotua gero eta potentzial handiagoa duten teknologiak dira: murgiltze esperientziak baliatuta, beste egoera, testuinguru edo mundu fisikoak ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Industriaren alorrean gero eta gehiago erabiltzen hasiak dira, eta hezkuntza alorrean eskaintzen dituen aukerak arakatzeko ikerketa borbor dago. HUHEZI, berrikuntza izaera duen erakundea izanda, teknologia hauek ikaste prozesuak aberasteko eta ikasleei bestelako esperientziak eskaintzeko erabiltzen aritua eta aditua izatea aurreikusten dugu.

08. Irekitasuna eta inklusio digitala

HUHEZIn presentzia handitu dela ikusita (Eskoriatza, Aretxabaleta, Bilbo), erakundeak ekosistema berrian integratzeko teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea aurreikusten da, bai tresna gisa bai lanketa-ikerketa objektu gisa. Azken horrekin lotuta, aliantzak sortzeko aukera ere azpimarratzekoa da: Bilboko campusean dauden beste fakultate eta titulazioekin, zein beste maila bateko erakunde eta instituzioekin (Euskal Herrian, Espainian eta nazioartean). Paraleloan, inklusiorako palanka ere izan daitezke teknologia digitalak, kanpo eragileak HUHEZIn integratzeko edo komunitatean bertan dauden aniztasun funtzionalei erantzuteko. Testuinguru horretan, HUHEZI erakunde irekitzat ulertzen dugu eta etorkizunean horrela izaten jarraitzeko teknologia digitalak baliatuko dituen.



09. Digitalizazioaren inguruko tendentzien etengabeko jarraipena eta jasoketa

Digitalizazioaren gaiak zaintza eskatzen du: etengabeko garapenean dagoen alorra izanda, egunerokotasunean ohikoak dira albisteak, berriak, txostenak, artikulua, jardunaldiak, ikerketak... Horien guztien berri izatea funtsezkoa da HUHEZIrentzat, digitalki aurreratua den erakundea izatea jomuga edukita. Hori horrela, zaintza hori artikulatzeko prozedurak finduta dituen erakunde bezala aurreikusten dugu HUHEZI, digitalizazio gaietan eguneratuta dagoena.

10. Digitalizazioaren inguruko ikerketa kolaboratiboa eta diziplinartekoa

Digitalizazioaren inguruko ikerketa egitea ezinbestekoa da digitalki aurreratua izango den erakunde batentzat. Alde batetik, ikerketa horietatik eratorritako ebidentzia zientifikoak beharrezkoak dira digitalizazioaren inguruko erabakiak HUHEZI barruan hartzeko. Beste aldetik, HUHEZIk arlo honetan espezializazioa garatzeko eta lortzeko, ikerketaren bidez sortutako jakintza ezinbestekoa da. Hori guztia, modu kolaboratiboan egiteak balio erantsia du: komunitateko beste talde batzuekin zein kanpoko beste instituzio/erakunderekin. HUHEZIk ildo honetan pausoak emango dituen erakunde gisa irudikatzen dugu, digitalizazioa objektu gisa hartuta, ezagutza eraikitze eta horren transferentzia egiteko.

